

Bihar da Plastikozko Poltsarik Gabeko Nazioarteko Eguna

**EROSKI-K URTEAN 1.100 TONA PLASTIKO
SORRARAZTEA ERAGOZTEN DU**

- Ordainleketan poltsekin egin duenari, dendako ontzien bilgarriari eta marka propioko ontzien ekodiseinuari esker
- Iaz amaitu zuen erabilera bakarreko ohiko plastikozko poltsak kentzeaz bere dendetatik
- Gainera, urtero 3.000 tona plastiko birziklatzen du

Elorrio, 2021eko uztailaren 2a.- [EROSKI](#)k ohiko plastiko motatik 1.100 tona sorraraztea eragotzi urte bakarrean; izan ere, material hori gutxitzeko egin duen apustua eta hartu duen konpromisoa indartu ditu bai ordainlekuan, bai dendako ontzien bilgarrian eta bai marka propioko ontzietan.

Aurrezpen horiek lortzeko, poltsa eta bilgarri berrerabilgarrien erabilera bultzatu du bezeroen artean bai ordainleketan eta bai freskoen ataletan, eta betiko erabilera bakarreko plastikozko poltsak ordezkatu egin ditu material konpostagarriko poltsekin, poltsa birziklatuekin eta FSC® ziurtagiria duten paperezkoekin. Horretaz gainera, jarraitzen du bere markako ontziak berrikusten, plastiko gutxiago izan dezaten eta erraz birziklatzeko modukoak izan daitezen.

"Konpromiso historikoa dugu plastikozko poltsak gutxitzeko, eta gure gainerako ontzietara zabaldu dugu. Gure Ingurumen Politikaren erabakiak dira, eta Osasunaren eta Iraunkortasunaren arloan hartuak ditugun 10 konpromisoekin lerrokatuta daude. Horri esker eta gure bezeroen erantzukizunari esker, urtez urte goaz gutxitzen plastikoa", adierazi du Alejandro Martínez Berriochoak.

Poltsa: konpromiso historikoa eta aitzindaria

EROSKI amaitu du ordainlekuko poltsen gama aldatzez eta orain paperezkoak, %55etik gora materiak birziklatuz egindakoak eta poltsa konpostagarriak ditu, zeinak lehendik zituenei batu baitzaizkie, hau da, errafiazkoei eta oihalezkoei.

Plastikoa gutxitzen 1997an hasi zen, berrerabil zitezkeen poltsak eskainiz; 15 aldiz ere erabil zitezkeen, eta %40 leku gehiago zuten. 2009an, beste poltsa berrerabilgarri bat atera zuen, eta erabaki zuen zentimo baten deskontua egitea erabili gabeko plastikozko poltsa bakoitzagatik. *"Neurri horrekin kontsumitzaileak*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

saritzen genituen kontsumo ohitura ekologikoagoak hartzeagatik. Kanpainari harrera ona eman zioten kontsumitzaileek, zeren eta lortu genuen argi eta garbi helaraztea nolako arazoa diren ingurumenerako plastikozko poltsak", azaldu du Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

2010ean, EROSKI zortzi urte aurreratu zen plastikozko poltsa gutxitzeko Espainiako araudira, eta erabilera bakarreko poltsak kobratzen hasi zen. Neurri horri esker, %60 gutxitu zen haren kontsumoa. Bi urteren buruan, EROSKI oihalezko poltsa berrerabilgarriaren lehen saila atera zuen, zeina erraz tolesten dena baita sakelari edo autoan eramateko, eta bateratu egiten ditu ingurumena eta elkartasuna; izan ere, etekin guztiak elkartasun kausetarako dira.

2019an beste poltsa mota batzuk gaineratu zituen, hala nola FSC® ziurtagiria duen paperezko poltsa, jatorri berriztagarriko poltsa konpostagarria —hondakin organikoen zabor poltsa moduan ere erabil daitekeena— eta poltsa berrerabilgarria, %55 pasa material birziklatua duena.

Era berean, freskoen sailean ere aldaketak egin ditu EROSKI, eta poltsa berrerabilgarriak eskaintzen hasi da, paperezko zorrotxoak ere bai, eta erretiluetan %80 baino gehiago da plastiko birziklatua; horretaz gain, sare berrerabilgarriak ere jarri ditu. Horri esker, 2018tik %30 murriztu da dendako ontzietarako erabiltzen den plastiko konbentzionala, eta horrekin gainditu egin su sektoreak 2021erako ezarria zuen helburua (%21), epe muga baino urtebete lehenago, gainera.

Ekodiseinuarekin eta ekonomia zirkularrarekin konprometitua

Ilido berean, EROSKI bere konpromisoarekin jarraitzen du bere markako ontzi guztiak ekodiseinu bidez eginak izan daitezen 2025. urterako, ohiko plastikoaren erabilera %20 tonatan murrizteko helburuz, %100 birziklagarriak, konpostagarriak edo berrerabilgarriak izan daitezen. Alde horretatik, EROSKI 400 hornitzailearen 3.000 produktu baino gehiago aztertu ditu Basque Ecodesign Centerrekin, eta helburua da aztarna plastikoa kalkulatzeko eta birziklagarritasuna neurtzeko, gero hobekuntza ekintzak identifikatzeko. 2018. urteaz geroztik ekodiseinu bidez egin ditu 145 erreferentziaren ontziak, eta areagotu egin du handizkako produktuen salmenta.

"Argi eta gabi egiten dugu handizkako produktu freskoen alde. Hala, gure fruta eta berduren %60 ontzirik gabe saltzen da, eta beste atal batzuetan ere eta produktu

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

gehiago saltzen da handizka; esaterako, arrandegian, %85 baino gehiago baita",
dio Martinez Berriochoak.

Horrekin batean, EROSKI desagerrarazten ari da erabilera bakarreko beste plastiko batzuk ere, adibidez lastotxoak, belarriko zotzak eta baxerak, eta bere markako freskagarrien lata eta botiletan ohiko uztaitxoak kendu eta material birziklatuz edo kartoiz egindako ontzi kolektiboak erabiltzen hasi da horien ordeaz.

Plastikorik ez sorrarazteko eta hondakinak gutxitzeko joeraren politikaz gain, EROSKI saihestu ezin dituenekin kudeaketa arduratsua darama; hala, birziklatzea eta berrerabiltzea bultzatzen du, alderantzizko logistika prozesuak indartuta, plataformetatik dendetaraino. Hala, hiru bat mila tona plastiko birziklatzen du urtero.

Kudeaketa zuzenaz gain, EROSKI birziklapena sustatzen du bezeroen artean, eta ontzian ipintzen du nola birzikla daitekeen; kontsumitzailea formatzeko ekimenak ere gauzatzen ditu, esaterako CONSUMER EROSKIren Erosketa Iraunkorraren Gida.